

DEBA IBAIAREN ITSASADARRA

Casacampo aldeko hezeguneak berreskuratzeko, lubaki batzuk kendu dira. Horrela, ura zirkulatu ahal izan da eta lehengoraturako marearteko espazioetan padurako espezieak birlandatu dira. Itsasbeheran, lokatzean bizi diren ornogabe txikiek hegazti migratzaileak erakartzen dituzte. Hegazti horiek, adibidez, koartzatxo txikiek, koartza hauskarek edo limoetako hegaztiak, atsedena hartzen dute paduran.

Itsasadarraren beste aldean, Artzabalgo ibarrak itsas ihitoki garrantzitsu bat gorde du mendeetan zehar. Berrikiago, ihitokiaren ondoan, lezkadiaren garapena erraztuko duen ur gezako baltsa birsortu da. Hazkunde trinkoa duen graminea handia da lezka, eta babes berezia eskaintzen die hegazti txikiei, hala nola, lezkadi arruntari.

Estuarioaren bokalean, hondartzaren gainean, harenondoko delako belar kolonizatzailea landatu da, harea finkatu eta kostako dunaren profila berreskuratu nahian.



Casacampo



Artzabalgo lezkadiak



Itsas getozka